

Eliza doneskaiñak, pagan ohitura ta sineste baten ondakina (XVII.mendetik XX.raiño)

Aurreko artikulu batean, («Petiri Agurgarria Cluny-koa napar euskaldun sineste baten jakile» in F. L. V. núm. 35, 1980), Jusef Egiategi-k idatzitako lehen liburuaz baliatu ginen, XII.mendeko sineste lekukotasunaren aipatzeko, hemen, bigarren liburuan irakurria, dugu aldatuko. Ohitura ta sineste berri horrez, gure hemezortzigarren mendeko idazleak dio, aspaldikoa dela, pagan garaikoa dela, baina berriki aldatua; geuk, gure aldetik eta gure izenaren etxondoko paperetan, ohitura horren bilakaera ta iraupena jarraituko dugu. Huna zer dion Egiategi-k; bi hizkuntzetan:

- 662 «*Elizetan egiten diren doneskaiñak (obraciones) eztirade Jinkoaz manhatiak bera bai gizonaren bidezartia (instituciones) Pariseko parlamendiak lehen bizian zütian erranpetü (tolerar) ta berzek Zahartasunaren errespetüra hartü.*»
- 663 «*Usantza hori Frantziako sartaldenian dago oraiño, Hüskal Herrietan Goroziman, marluzet, txardinaz ta arrautzeta. Noizpait lekuiko Jaunaren doneskaiña bere zaldia zulpainduriak (con sus arreos) bil konboiaren aitzinian mithilak boiñez eramaiten ziana elizborthala. Han, Erretorak hartzen Bena usantza hau da, ez izanik bezala; Abari bat orai, laborarien gisala, ardia etxeeko anderiaren; jende apaletan oillarra edo kapoa gizonaren, oilloa emazteren, oillaskoak seme alhaben. Kostüma hek daude, bekila (ere) haiñbeste ogi erre, haiñbeste othoitze non parropia batzuetan lükinaz, belizate artzaiña bere asebethian.*» (Bigerren liburia)

J. M. Barandiaran-ek Zuberoako Liginagan 1949.ean egin zuen ikerketan esan zioten: «*Ez da gehiago ehorzketaetan oberendarik egiten elizetan; baina duela urte batzu bizpahirur ogiren "doneskaiña" egiten zen. Hetarik zioten, hazkurri guztia galtzen zutela ehorzketa-meza denboran eta hazkurri hori, eskaintzen zitzzion zen-ari, arimaren janari zitziola.*» (J. M. Barandiaran *Mitología Vasca* Ed. Minotauro, Madrid, 1960, 131.orrialdean) Beraz, hogeigarren mendeko zuberotarrek, Egipto Zaharreko jendeek bezalako arrazoia ematen zioten ohiturari: beste mundurako hazkurria. Egiategi-k ekartzen duen

TXOMIN PEILLEN

bereizkuntza Garizumako doneskaiñez da, bakalau, txardina ta beste bijilia janariak baitira.

Gure kondairalariak dio XVIII.mendean ikusten zirela oraiño Larra-mendi-k Gipuzkoarako aipatzen dituen abere eskaintzak, baina Jesuitak, hil meza garaian elizatean esegitzen zen idia baiño ez du aipatzen, hemen Egia-tegik dio eskaiñetan «heiñak», bazirela aberastasunaren arauera: zalditik oillaskoraiño. Hamaseigarren mendean ahari hila aldare gaiñean ipintzen zuten meza garaian eta Hilen Egunean; kaputxino bat, pagan zelakotz ohitura, galerazi nahiz predikatzen zebilelarik, Duvergier de Hauranne kalonje euskal-duna ohituraren alde jarri zen, jendea frairearen aitzi jarriz.

Badirudi abere eskaintza hemeretzigarren mendean galdu zela baina ogi eskaintza ta meza eskaintzak jarraitu behar zuen gure egunetaraiño eta Egia-tegi-k aipatzen dituen gehiegikeriekin. Haiñ zuzen Zuberoan «Ispirituzko Ordeiñu» bat zer izan den eta zer den argitu nahi genuke, doneskaiñen jarrai-pena baita.

Barkoixe Peillen-eneko kontratu zaharrak ikertzen eta sailkatzen ari nintzela, frantses izenburu batekin «Testament Spirituel» delakoekin gertatu naiz; XVII, XVIII eta XIX.mendeko idazkiak notario baten aurrean, zaharrak hil gabean, nahiz lekuköek, jakileek hil ondoren, idatzerazten zitzuzten; XX.mendean, berriz, auzo leheriak eta auzoek egin paper arrunt bati hala deritzao, nahiz euskaraz *mezasariak* izena duen. Ikus ditzagun batzu.

1. Otoitz batekin hasten da, esan ondoren gorputzez gaixo ta ispirituz sano dituela, eztakialarik noiz dukean hiltzeko ordua, nahiz duen haren segurtasuna, bere arima Jainko aitari artamendatzen duela, baita Ama Birjina ta Sainduen bitartekotasuna eskatzen bere bekatuez izan dadin barkatua; eta Barkoixen lurperatua, d'Errecart-en lekuau.

*«Aujourd'buy vingt septiesme Janvier de mil six cens soixante seize,
Peilhen d' Errecart Sr prop.re de sa maison estant malade de corps sain
portant de son sprit, s'asseurant n'avoir rien au monde de plus certain
que la mort ny de plus incertain que lhure d'icelle, a fait son dernier
testament voulant que tous les autres écrits ou codicilles et autres condi-
tions ores y a faictes soyent pour non advenues et qu'au contraire celluy
cy soit son plain et entier offert, Led. Peilhen testateur a recommandé
son ame a Dieu le pere Eternel le priant très humblement par led. mister
de son adorable fils et par les Intercessions de la Saincte Vierge, de tous
les Saints et Sainctes du paradiz de luy vouloir donner le pardon de
tous ses pechés, ensuite de quoy led. testateur voust qu'après la separa-
tion de son ame davecq le Corps soit inhumé dans le cemitiaire dud.
Barcux, lieu et place desd. d'Errecart...»*

ELIZA DONESKAIÑAK, PAGAN OHITURA TA SINESTE BATEN ONDAKINA

2. *Meza doneskaiñak.* Ordeiñuegileak bere arimarentzat eskatzen ditu mezak, kofradi bati elizari, ta txiroei diru eskaintzak egin ondoren:

«A l'eglise de St Sauveur à l'oeuvre de laquelle il laisse six liures, a la Saincte frairie trois liures, aux pauvres une livre dix solz.»

«Laisse que de son propre on lui fasse dire quarante messes, pour ses obligations dix, en tout cinquante messes; a son confesseur sept solz, aux quatre oratoires a chascun cinq solz.»

Beraz ordeiñuegileak berrogeitahamar meza eskatzen baditu, pentsa zenbat auzoek, ahideek, adiskideek horregatik 1676.urtean; Egiategik 1780.urtean aipatzen duena eta gaur Zuberoan ikusten dena berdin da gure idazleak arrazoi du, egun batean urteko asebetea gastatzen dela egun bakoitz ogi erre ta mezetan.

Idatz eredu hau berdin berdina XVII, XVIII, XIX mendeko, bost ordeiñuetan irakurtzen dugu eta notario aurrean eginak, baina errepublikak ez ditu holako paperak ezagutu nahi izango eta 1870. etik landa ez da gehiago familietan aurkitzen, holako idazki ederrik Hain zuzen karta paper arrunt batetan irakurtzen dut:

«Le 28 juillet 1893. Le Testament Spirituel de feu Anne Etcheberry Peillen; consiste en ce qui suit: elle a laissé

*à l'eglise 5 f
pour les pauvres 5 f
à la chapelle de Paradis 1 f
et à celle du Bourg 1 f*

Elle a ordonné que l'on ferait dire pour le repos de son ame 60 messes, la famille promet 10 messes.»

Ondotik auzoek, adiskideek, ahideek emanerazten eta pakatzen dituzten mezak agertzen dira; meza libera erdia, franco erdia kostatzen delarik, apezak egun hartan 35 libera etxekoengandik biltzen du, eta enparauen gandik 105, ez da gaizki egun bakoitzean (alaba baten dotea garai hartan mila libera da). Handik urtebete 1894.urteko Ekainaren 17an Kadet Ayçaguer Peillen-en ordeiñuan hilak hamar meza hitzemanik, etxekoek gutixko eritzirik, beste ehun eskatzen dute eta formula berdinarekin eta paper arruntean egina da. Oraiño XX.mende hastapenean Grat Chabalgoity Peillen hiltzen denean, eskola kartilla batetik hartu paper batetan, gauzak motzago dira eta beti Testament Spirituel hori frantsesez dago, ofizialtasuna gordetzeko:

TXOMIN PEILLEN

*«Legs pour l'église paroissiale 10 f
pour la chapelle de Paradis 2 f
pour la chapelle du bourg 1 f

Pour le repos de son âme, la famille 50 f»*

ondotik besteen meza-sariak.

Aintziñako doneskaiñetatik «meza sariak» dira gelditzen Zuberoan, eta euskaldunen erorzketa guzietan ehunka ditu meza sariak biltzen, *meza biltzale* delakoak; meza biltzale hori *aizolehena*, lehen auzoa da, batzutan bigarren auzoak lagundua. Santa Grazin Ibarburu etxearekin batean «meza-sari» paper batzu izan ditut; azken urteetako gehienak euskaraz dira eta bakkarrak etxekoez kanpoko mezak ekartzen, Testament Spirituel, izenik ez dute, paper arrunt batzu dira, egunik ez otoitzik ez dakartenak.

LAS OBLACIONES COSTUMBRE PAGANA CONSERVADA POR LA IGLESIA EN EUSKAL HERRIA

Después de Larramendi nos dice Egiategi:

«Las oblaciones que ofrecemos en las iglesias parroquiales no proceden de institución divina sino humana; fueron toleradas por sentencia del Parlamento de Justicia de París y los demás se han conformado con él por mero respecto a la Antiguedad. Este uso se mantiene, todavía, en algunas comarcas de la parte occidental de Francia, los países vascos; durante los tiempos de Cuaresma estas ofrendas son de bacalao, sardinas, huevos y demás géneros de vigilia. Antaño la oblación del Señor del Pueblo consistía en su caballo con arreos, que precedía el sepelio guiado por un lacayo que le acompañaba hasta la puerta de la iglesia, donde gentes del cura tomaban posesión de la cabalgadura, pero este uso hace mucho se perdió, pero no la ofrenda de carnero por el labrador, de la oveja por la madre o la esposa, del gallo o capón por gente humilde, de gallina por su esposa y pollos por los hijos e hijas.»

Lo que se añade a todo esto, con ocasión de los entierros es un montón de ofrendas de pan y misa, en tal cantidad que bastarían para alimentar al pastor durante el año.

(Libro segundo 1780, traducción tx. peillen) (cita núm. 663)

Parece que durante el siglo XIX ya no se hacían ofrendas de comidas y animales, con exclusión de los panes, pero la costumbre de las misas no sólo se mantiene pero se fortalece con el tiempo. Esta costumbre de las misas

ELIZA DONESKAIÑAK, PAGAN OHITURA TA SINESTE BATEN ONDAKINA

adquiere un carácter oficial puesto que los que iban a morir o los testigos de su muerte, hacían redactar un Testamento Espiritual en francés, delante de un notario.

De los papeles de nuestra familia, depositados en la casa de Peillen en Barkoixe (Barcus) hemos sacado cuatro de aquellos documentos, uno de 1676 y los demás del siglo XIX y XX; nos damos cuenta que la fórmula es idéntica en los testamentos de los siglos XVII, XVIII, XIX; a lo menos durante la Monarquía y los dos Imperios franceses era posible registrar tal documento, pero con la primera República y con las demás se prohibió la redacción oficial de tal testamento. Por eso, lo que más tarde se llama Testamento Espiritual ya no será sino una lista escueta en papel basto, redactada por el primer vecino, llevando al principio las misas de los de casa, luego de los vecinos, amigos, parientes en desorden, misas que pagan en sufragio del alma del muerto.

La cantidad de misas es quizá más importante que en los tiempos de Eguiateguy, porque el número de misas va en proporción de la importancia y el fasto que se quiere dar al entierro.

La costumbre se ha cristianizado con el tiempo, y no por los esfuerzos de cierto monje que en Bayona en el siglo XVI predicaba contra la costumbre de ofrecer y exponer un carnero sobre el altar durante la misa de exequias, uso defendido por un futuro jansenista, canónico de Bayona y famoso euskaldun, Duvergier de Hauranne.

El testimonio de Eguiateguy añade al de Larramendi, con la indicación de una jerarquía en las oblaciones según los recursos de la familia y el sexo del muerto. Por otra parte, al testimonio del historiador suletino del siglo XVIII, se puede añadir lo que recogió J. M. Barandiarán en Liginaga (Zuberoa) en 1949, es decir, la interpretación, que parece salir de los antiguos egipcianos, según la cual el alma se nutre de las oblaciones.

Txomin PEILLEN
UZEI-koa.

